

**JIANYU LAIDE MAMA / HER HEART BEATS IN ITS CAGE • Txina**

Xiaoyu Qin (zuzendaria, gidoilaria), Zhao Xiaohong (aktorea), Chow Keung (ekoizlea), Shen Fen (ekoizle exekutiboa), Liu Yonghong (kameralaria).

“Askotan kaiola fisikoak baino gehiago kaiola indibidualak daude”

SERGIO BASURKO

Xiaoyu Qin zuzendari txinatarrek dokumentaletik fikzioarako jauzia egin du *Jianyu kaide mama* filmarekin, hori bai, errealitatea erabat baztertu gabe; izan ere, tratu txarrak ematen zizkion senarra hiltzeagatik kartzelan hamar urte eman dituen eta istorio horren benetako protagonista den emakume batean oinarritzen da filma. “Hasieran, dokumental bat egin nahi nuen, baina Zhao Xiaohong ezagutu genuenean fikzio bat egitea erabaki genuen”, adierazi du Qinek. Hala ere, protagonistak bizi izan zituen benetako eszenetatik abiatzen da filma.

“Urte erdi baino gehiago eman nuen ia hamar espetxetan ikertzen eta gidoia xahutzen, ehun preso baino gehiago elkarriketatu nituen. Hori izan zen filmeko pertsonaia guztien oinarria. Kartzelako bizitza eta hainbat emakume presoren askatasun-osteko bizipenak erretratatzeko izan dut helburu, talde berezi honen bizitzetan sakonduz. Errealitatea da gidoigilerik onena; teknika artistiko guztiak baino gehiago balio du mundu errealearen energia erakusteko”, adierazi du zuzendariak.

Jianyu kaide mama filma, hain zuzen ere, mundu errealeko islaz gainezka dago. Kartzelako eszenak kartzelan bertan filmatu ziren, eta espetxeko harresietatik kanpoko eszenak, berriz, benetako emakume preso askatuak bizi ziren lekuetan. “Kartzelak kontraesanez betetako lekuak dira”, deritzo zinemagileak, eta argitu du filmean agertzen den



Xiaoyu Qin (bigarren eskuinetik) filmeko taldearekin.

JORGE FUERTEBUENA

espetxea benetakoa dela. Han eduki zuten preso protagonista, eta han ezagutu zuten elkar zuzendariak eta protagonistak. “Zuzendaria hainbat espetxetara joan zen ni bezala kondena betetzen ari ziren hainbat preso elkarriketatzera. Ni kalera irteteko zorian nengoen, baina asko nuen kontatzeko. Uste nuen jende askok ez ninduela ulertuko, ez nekien nolakoa izango zen jendearen erreakzioa, itota nengoen, eta nire bezalako egoera batean zeuden beste emakume batzuei lagundu nahi nien”, adierazi du Xiaohongek, hunkituta. “Asko sufritu dugu film

hau egiten, baina merezi izan du”, baieztatu du.

Filmak azaleratzen duen gaietako bat emakumeen aurkako indarkeria dela azpimarratu du zuzendariak: “Filma grabatzen ari nintzenean, Zhaokesan zidan sinetsita zegoela bere mezuek beste emakume batzuentzat balio zezaketela. Arazo hau gizartean dago, eta ez soilik Txinan, unibertsal da. Espero dut filmak balio izatea auzi honi oihartzuna emateko, kontuan hartu izateko eta ahal deheinean geldiarazteko. Eta espero dut gizon askok ikuste apelikula, ispiluaren aurrean jartzeko eta gai honi buruz gogoeta eginarazteko”.

“Egungo Txinan kontrola ez delako hain zorrotza egin ahal izan dut filma, baina presoek nolabaiteko askatasuna dutela dirudien arren, benetan ez dago askatasunik eta zainduta daude”, esan du Qinek. Hala ere, “askotan kaiola fisikoak baino gehiago kaiola indibidualak daude”, ondorioztatu du.

“Aldi berean, errealismoa eta sinbolismoa nahastuz, iragan berreskurazina berraztertu nahi izan nuen. Bizi-bidaia hori, beraz, emakumeen autohazkundeari buruzko parabola gisa uler daiteke”, laburbildu du.

A raw story of violence and redemption

Chinese director Xiaoyu Qin transitions from documentary to fiction with *Jianyu laide mama / Her Heart Beats in Its Cage*, presented in the Official Selection at Zinemaldia.

The film tells the true story of Xiaohong Zhao, a woman who spent ten years in prison after killing her husband. The role is portrayed by the real-life actress herself.

The film explores the emotional impact of domestic violence, hinting at self-defence without directly stating so. At the press conference, Zhao, visibly moved, said she hopes the film will help other women around the world in similar situations. Qin also addresses the issue of rural-to-urban migration in China, depicting the protagonist's struggle with her son's education and the distant relationship between them after leaving prison. Despite presenting a fictionalised narrative, many scenes are based on real-life events and on the director's interviews with over a hundred inmates. Through this poignant portrayal, Qin aims to shed light on social concerns, including prison conditions and gender-based violence.

ESPAÑA EN LIBERTAD
50 AÑOS